


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 1,5 igo dira 2021eko urtarrilean aurreko hilaren aldean

**Aurreko urtearekin alderatuta (2021eko urtarrila 2020ko urtarrilaren aldean),
kostuak % 1,4 igo dira**

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 1,5 igo da 2021eko urtarrilean aurreko hilaren aldean. Urte arteko terminoetan, kostuak % 1,4 igo dira, Eustatek emandako datuen arabera.

Aurreko hilabetearen aldean lehengaien kostuak % 1,4 igo dira, eta eskulanaren kostuak, % 1,9.

**Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-
arteko aldakuntza-tasa. (%)**



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Urtarrilean, Etxegintzaren azpisektoreak % 1,4ko hil arteko igoera izan du bere lehengaien kostuan, eta Obra Zibilaren azpisektoreak, % 1,7koa. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 1,7 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 0,4 jaitsi.

Sektoreak kontsumituriko lehengaien prezioei dagokienez, 2021eko urtarrilean 2020ko urtarrilaren aldean hazkunderik handienak izan dituztenen artean honako sektore hauek nabarmentzen dira: *Material elektronikoa* (% 6,6), *Metalurgia* (% 5,5) eta *Material elektrikoa*

(% 2,7). Aitzitik, prezioek behera egin dute sektore hauetan: *Petrolio*a fintzea (% 15,6 behera), *Makineria* (% 4,2 behera) eta *Energia elektrikoa eta gasa* (% 2,8ko jaitsiera).

**EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA.
ALDAKUNTZA TASAK (p). 2021ko urtarrila**

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	107,9	1,5	1,4
Eraikinak	108,0	1,5	1,7
Obra zibila	107,5	1,8	0,2
LEHENGAI	107,2	1,4	1,3
Eraikinak	107,3	1,4	1,7
Obra zibila	106,6	1,7	-0,4
LAN-ESKUA	110,2	1,9	1,9

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62